

ARABAKO INDUSTRIALDEA, S.A.

Sozietatearen izena

Arabako Industrialdea, S.A.

IFK

A01113505

Izaera

Sozietate Publikoa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Partida murriztaileak dituen balioespena.

Sorrera

Arabako Industrialdea, S.A. 1991ko ekainaren 5ean sortu zen eskritura publiko bidez, "Legutianoko Industrialdea, S.A." hasierako izenarekin, eta honako honek baimendu ondoren: [270/1990 DEKRETUA, urriaren 9koa, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua, A.B. delakoari «Legutianoko Industrialdea, A.B.» Baltzu Publikoa sortzeko baimena ematen diona.](#)

Geroago, 1997ko urriaren 8an, "Lautadako Industrialdea, S.A." izena hartu zuen, xurgapen bidez honako hauek elkartu ondoren: Legutianoko Industrialdea, S.A. (sozietate xurgatzailea) eta Aguraingo Industrialdea, S.A., Iruña-Okako Industrialdea, S.A. eta Kanpezuko Industrialdea, S.A. (xurgatutako sozietateak); erabakia sozietate bakoitzak hartu zuen 1997ko ekainaren 27an egindako ohiko batzar nagusietan, eta honako honek onartu zuen: [244/1997 DEKRETUA, urriaren 21ekoa, Aguraingo Industrialdea, S.A., Iruña-Okako Industrialdea, S.A. eta Kanpezuko Industrialdea, S.A. sozietate publikoen ezabapena onartzen duena. Absortzioaren ondorioa da hori.](#)

Azkenik, 2011ko ekainaren 30ean, Lautadako Industrialdea, S.A. (xurgatzailea) eta Aiara Haraneko Industrialdea, S.A. (xurgatua) sozietateen ezohiko batzar nagusietan bi sozietateek xurgapen bidez bat egitea onartu zuten, eta hau erabaki: xurgatutako sozietatea azkentzea, eta haren ondare sozial osoa sozietate xurgatzaileari eskualdatzea; azken horrek, beraz, xurgatutako sozietatearen eskubideak eta betebeharrak bereganatu zituen oinordetza unibertsalaren bidez. Era berean, egungo izena hartzea erabaki zuten, Arabako Industrialdea, S.A. izena, honako honek baimena eman ondoren: [106/2011 DEKRETUA, maiatzaren 31koa, Aiara Haraneko Industrialdea SA sozietate publikoa, xurgapen bidez, azkentzeko baimena emateko dena.](#)

Sail-atxikipena

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna.

JESN

4110 Higiezinaren sustapena.

Sozietatearen helburua

Xedea industria-ekimena eta -inbertsioa bultzatu eta sustatzea da, Arabako lurralde historikoan, honako hauek eginez:

- a) Industriak ezartzeko lur egokia sustatzea urbanistikoki, horretarako hirigintza-egitasmoak eta hirigintza-proiektuak sustatu eta idatziz, birpartzelazioak, konpentsazioa edo hirigintza-arloko legedian aurreikusitako beste edozein aukera erabiliz; bai eta edozein titulupean industriarako hiritartu eta sustatzeko lurra erostearen bidez ere.
- b) Pabiloi eta eraikin osagarri osatutako industria-guneak eraikitzea, eta haiek kudeatzea titularitatea erabat eskualdatu arte.

Sailkapena kontabilitate nazionalan


Eskualde Administrazioiko Herri Administrazioak.

Kapital soziala

12.855.624 €

Kapital sozialaren osaera

Sprilur, S.A. % 56,75
Araba, Garapen Agentzia, S.A. % 43,25



Administrazio Kontseilua

Administrazio Kontseilua da sozietatea ongien kudeatzea eta ordezkatzeko dagokion sozietateko kide anitzeko organoa. Honako hauek dira ekitaldiko urteko kontuak egin dituzten Administrazio Kontseiluko kideak:

<u>Izena:</u>	<u>Honen proposamenez izendatua:</u>
Mikel Oregi Goñi jauna	Sprilur (presidentea).
Jose Miguel Artaza Artabe jauna	Sprilur.
Miguel Artamendi Larrañaga jauna	Araba, Garapen Agentzia, S.A. (idazkaria).

EAEko Sektore Publikoaren proposamenez izendatuta: % 66,66

Urteko aurrekontuak

www.euskadi.eus

Ekitaldiko urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta aurrekontuen likidazioa

[Ikusaritze-txostena, ekitaldiko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, Kapital- eta ustiapen-aurrekontuen likidazioa, eta Programatutako helburuen betetze-mailari buruzko memoria.](#)

Ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	17.098.176 €
Ondare garbia	12.383.783 €
Negoio-kopuruen zenbateko garbia	871.784 €
Batez besteko langile-kopurua	4

Sozietatearen helbidea

Uzbina, 24 - Bul. eraikina - 13.. bul. Jundizko industrialdea - 01015 VITORIA - GASTEIZ (Araba)

Webgunea

www.sprilur.es